

## JAIXEN INGURUKO HAINBAT OHAR

### Herri bazkarirako txartelak salgai

Herri Egunean (irailaren 30a) egingo den herri bazkarirako txartelak salgai:

- Olakua, Arrano, Oñati eta Izarraitz tabernetan eta kultur etxean. **Astelehenean txartelak tabernetatik jaso eta kultur etxean soilik erosi ahal izango dira.**

Haurren menua (12 urtetik beherakoentzat): 10 €

- Makarroiak tomate eta txorizoarekin
- Oñatiko haragiz egindako hanburgesak
- Txokolatezko natillak
- Ura eta freskagarriak

Helduen menua: 19 €

- Marmitakoa
- Oñatiko haragi gixatua
- Oñatiko gazta eta irasagarria
- Kafea eta kopa

### Jaixetako zapiak salgai

Kultur etxean

1€

### "Oñatiko zertzeladak" antzerki emanaldirako sarrerak

Olaitturri taldearen eskutik Kilometroak jai egunean herriko hiru gunetan eta hirutan eskainiko diren hiru antzerki lan laburrak (20 min.) elkarren segidan ikusteko aukera izango da irailaren 29an Santa Ana aretoan (19:30)

Sarrerak Txokolateixian salgai (6 € -antzezlanen liburua oparitan jasoko da)

### Bertso jaialdirako sarrerak

Urteroko jaietako bertso jaialdia urriaren 7an egingo da Zubikoako pilotalekuan (22:30).

Bertsolariak: Amets Arzallus, Maider Arregi, Unai Iturriaga, Maialen Lujanbio, Andoni Goitia eta Igor Elorza

Sarrerak aurrez salgai Txokolateixian (Helduak 10 €; Gazteak 8 €)

### Udal zerbitzuak itxita

Udal bulegoak, Gaztelekua\*, Kultur Etxea eta Zubikoa Kiroldegia itxita egongo dira irailaren 29tik urriaren 2ra arte (biak barne)

\* Gaztelekua, irailaren 28an 19:00tan itxiko da

## TRAFIKO MOZKETAK

Unibertsitate etorbidea irailaren 28an itxiko da (19:00) eta hala mantenduko da urriaren 3ra arte (goizaldera) Unibertsitate etorbidea jai egun guztietan itxita egongo da Aker taberna paretik errotondaraino.

Irailaren 30: Kiroldegi aurrealdeko aparkalekua itxita (anbulantzia eta catering zerbitzuko ibilgailuentzat gordeko da)

Urriaren 1: - Errementari plaza pareko aparkalekuetan ezingo da autorik utzi eta Bidebarrieta kalean, "Dia" aurrealdean, 10 bat aparkaleku libre utzi beharko dira. Zubibarri kaletik doazen autoak kiroldegi aldera jo beharko dute halabeharrez (Goizean, 14.00ak arte)

- Ikuskizun pirotekniko ibiltaria Postetxe paretik abiatuko da plazaraino (23:00). Zirkulazioa ibilbide osoan zehar itxita egongo da eta Postetxetik errotondarainoko tartea ikuskizuna pasa ondoren irekiko da. Bitartean, Lizaur kaletik doazen ibilgailuek Ibarra kaletik bideratu beharko dute derrigorrez.